

HIZKUNTZEN IKAS-IRAKASKUNTZA
 HIZKUNTZEN IKAS-IRAKASKUNTZA ARLO/IKASGAI EZ LINGUISTIKOETAN

ZER EGITEN DUGU?	ZER HOBETU BEHAR DUGU?	LEHENTASUNA
<p>Arlo/ikasgaiei dagokien irakurmena, idazmena, entzumena, mintzamena eta interakzioa bultzatu eta lantzen dira?</p> <p>Hizkuntza-trebeziak arlo guztietan izaten dira kontuan hizkuntza komunikazio tresna delako. Batez ere matematikako arloan idatzizko ulermenari buruzko kezka adierazten dute. Arlo guztietan azpimarratzen ahozko hizkuntza lantzearen garrantzia. Jarduerak egiten dira, ataza solteak, baina ez era adostu eta jarraian. Uste dugu ahozko hizkuntza gehiago landu behar dela. Ziklo eta departamendu guztietan adierazten da ahozko hizkuntzaren inguruko lana hobetzeko beharra.</p>	<p>Ahozko hizkuntzaren inguruan hobetu daitezkeen alderdiak aztertu eta ikastetxe mailako erabakiak hartu.</p>	1
	<p>Garrantzia eman arloetako berariazko testuen ulermenari.</p>	2
<p>Arlo/ikasgaiei dagokien irakurmena, idazmena, entzumena, mintzamena eta interakzioa ebaluatzen dira? Era bateratuan ebaluatzen dira arlo/irakasgai ezberdinetan?</p> <p>Trebezia hauen inguruko lana egiten da, baina ziklo eta departamentu guztietan ebaluazio irizpide argiak zehazteko beharra ikusten da. Ez dago hizkuntzak eta beste arloen arteko koordinaziorik ahozko eta idatzizko testuak zuzentzeko. Koordinatzeko zailtasun handia dago nahiz eta koordinatzeko erak bilatzeari garrantzi handia ematen zaion.</p>	<p>Hizkuntza-trebetasunak ebaluatzeko ebaluazio adierazleak aukeratu eta adostu.</p>	1
	<p>Hizkuntza-trebetasunak ebaluatzeko ebaluazio tresnak aukeratu eta adostu.</p>	3
	<p>Irakasleen arteko koordinazio moduak bilatu, Hizkuntza Proiektuko batzordearen laguntzarekin.</p>	1